

CJ

BIDEZKO MERKATARITZAKO KOADERNOA

Kakaoari buruzko monografikoa

4. Zenbakia | 2014ko Maiatza



Bidezka Merkataritzaren MUNDU EGUNA

ONA EKOIZTEN DUENARENTZAT. ONA KONTSUMITZEN DUENARENTZAT
ONA MUNDUA ALDATZEKO

% 100 LIBRE MULTINAZIONALETATIK, HAUR-ESPLOTAZIOTIK, GENERO-DESBERDINTASUNETIK, DUINTASUN GABEKO SOLDATETATIK, TRANSGENIKOETATIK,
INGURUMENAREN ETA IDENTITATE KULTURALAREN AURKAKO ERASOETATIK www.comerciojusto.org



COORDINADORA ESTATAL DE
COMERCIO JUSTO

Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundea (www.comerciojusto.org)

Idazlea: Gonzalo Donaire

Itzulpena: Luis Miguel Sainz Pezonaga

Maketazioa: Masgráfica

Inprimaketa: Advantia Comunicación Gráfica

FSC ziurtagiria duen paperean inprimatua

Madril, 2014ko maiatza



Lan hau Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 3.0 Unported Creative Commons lizentziapean dago (CC BY-NC-SA 3.0). Lizentziaren kopia bat ikusteko: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/legalcode>



Koaderno hau, bai eta sartuta dagoen kanpaina ere, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziak (AECID) finantzaturiko proiektu baten barruan daude. Argitalpen honen edukiaz egileak baino ez dira erantzule, eta ez du halaberharrez islatzen AECIDen iritzia.



1	SARRERA. JATORRIRA ITZULI PROZESUA ULERTZEKO	2
2	KAKAOAREN EKOIZPEN-KATEA	3
	Kakaoa	3
	Uzta-bilketa	4
	Ehoketa	5
	Azken eraldaketa	5
3	KAKAOAREN MERKATUA	6
	Balio-katea: nola banatzen duten pastela	6
	Non hazten den kakaoa: herrialde ekoizleak	8
	Non egiten den txokolatea: herrialde inportatzaile eta eraldatzaileak	9
	Non kontsumitzen den txokolatea: gero eta handiagoa den eskari global bat	10
	Zer dagoen kakaoaren eta txokolatearen prezioaren atzean	10
4	DESOREKA KOMERTZIALAK: INPAKTUAK ETA ALTERNATIBAK	14
	Haurren lana: gaitz jasanezin bat	14
	Produktibitatearen makilatxo ez hain magikoa	16
	Iraunkortasun-zigiluak ez dira aski	17
	Bidezko merkataritzako kakaoa: goraka ari den alternatiba bat	18
5	EZAGUTU BIDEZKO MERKATARITZAKO KAKAO-EKOIZLEEN TALDEAK	19
6	INFORMAZIO GEHIAGO IZATEKO ESTEKA INTERESGARRIAK	21

1. Sarrera. Jatorrira itzuli prozesua ulertzeko

Produktu bat dendara iristen denean, amnesia-moduko bat izaten du, haraino eraman duen bidezaz oroitzeta galarazten diona. Kontsumitzaileok prozesu luze eta konplexu baten azken emaitza baino ez dugu ikusten; prozesu hori ezkutuan gordetzen da, eta, gehiegitan, gehiegikeriaz, bidegabekeriez eta desorekaz josita egoten da, pertsoneri dagokienez zein ingurumenari dagokionez. Salgaiaren *fetixizazio* hori ez da, inola ere, prozesu berria, baina are nabarmenago egiten da kontsumitzen diren tokitik oso urruti landuriko produktuak direnean, gure erosketa-saskiraino heldu arte milaka kilometro egin behar dituztenean eta etapa eta esku askotatik igaro behar dutenean.

Bidezko merkataritza ez da mugatzen giza eskubideak eta ingurumena errespetatzen dituzten irizpide batzuen arabera landutako produktuak banatzera; horrez gain, bada mugimendu zabal bat, duela hainbat hamarkadatik hona nazioarteko merkataritza zuzentzen dituzten lege bidegabeak aldatzeko eta herritarren artean kontsumo kritikoa eta arduratsua sustatzeko lan egiten duena. Hala, bada, erosten dugunaren alde ezkutuari begiratzea da kontsumitzaile gisa eman ahal eta behar dugun lehen pausoa, merkataritza, ekonomia eta mundu bidezkoagoak sortzen laguntzearren.

Txokolate-tableta bat erostea edo katilu bete kakao-esne bero hartzea prozesu komertzial luze baten ondorio da. Etapak zein diren eta zer ezkututzen duten ulertzeak, kontsumitzen dugunari informazio gehiago eta hobeak duten bestelako begi batzuekin begiratzea ez ezik, aukera arduratsua eta bidezkoagoen alde jartzeko bidea ere emango digu. Koaderno honek gure postre, askari eta gosarrietan egoten den txokolatearen jatorrira itzultzeko

ibilbide labur bat eskaintzen du. Kakao-aleek azken merkaturaino heldu arte egiten duten bideari eginiko begirada kritiko bat da, ekoizpenean eta banaketan parte hartzen duten eragile eta etapetan arreta jarriz eta haien komertzializazioak aurkezten dizkigun inpaktu eta erronketako batzuk aztertuz.

Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundea (CECJ)

Plataforma bat da CECJ, Espainiako estatuan bidezko merkataritzari loturik dauden eta inportazioko, azken salmentako eta/edo sentsibilizazioko jarduerak egiten dituzten 30 erakunde biltzen dituena. Haren lana bideratzen da sistema komertzial alternatibo eta solidario hau bultzatzera, eta kide diren erakundeei zerbitzua ematera. CECJ Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundeko (WFTO) kidea da.

CECJren helburua da gizarte-errealitatea zein nazioarteko merkataritzaren arauak eraldatzea, politika publikoetan eragina izanez, gizartea sentsibilizatuz eta mobilizatuz, eta bidezko merkataritzaren sektorea indartuz.

2014ko Bidezko Merkataritzaren Mundu Eguna

Argitalpen hau CECJk Bidezko Merkataritzaren Mundu eguna ospatzeko prestatu dituen materialetako bat da; egun hori, hain zuzen ere, maiatzaren 10ean ospatuko da aurten. 2014. urtean kakao ardatz nagusitzat hartzea erabaki dugu, bidezko merkataritzako produktuen artean ezagunenetako, berezkoenetako eta kontsumituenetako bat Espainian. ●

2. Kakaoaren ekoizpen-katea

Kakaoa

Jatorria

Theobroma cacao da kakao-arbola arrunki deitzen diogun landarearen izen zientifikoa. Jatorriz Amazoniakoa da, eta han berez hazten zen, ibai-arroetan. Merkataritza-bideetatik zehar hedatu zen Erdialdeko Amerika guztira, eta badago egiazaturik han duela 3.000 urte baino gehiago ere bazeudela kakao-sailak landatuta. Hain zuzen ere, bai *kakao* hitza bai *txokolate* hitza nahuatl hizkuntzatik datozen hitzak dira, eta hori mexiken eta Erdialdeko Ameriketako beste herri indigena batzuen hizkuntza da¹.

Gaztelar kolonizatzaileak egun Mexikok hartzen dituen lurraldeetara iritsi zirenean, «jainkoen jaki» hori aurkitu zuten, diruztat erabilia eta edari mingots eran hartua. Iberiar penintsulara heldu eta gero, errezeta goi-mailakoen gustura aldatu zen, osagaiak aurrez beroturik eta azukrea gehiturik, egungo txokolate beroaren hasierako bertsioztat har daitekeena asmatuta.

Dena dela, XIX. mendera arte ez ziren gertatu egun eza gutzen dugun industriaren oinarriak ezarri zituzten aldaketak. Kakao-prentsa asmatzean, kakao-gurina atera ahal izan zen, eta horrek bide eman zuen handik urte batzuetara, Suitzan, esnea gehitzen saiatzeko, eta txokolate solidozko lehen tabletak sortzeko.

Aldi berean, Afrikan aurrera eramanean zuten kolonizazioarekin kakao-arbolak hazteko lur tropikal berriak aurkitu zituzten europarrek, eta horrela ekin zitzaion ekoizpen-eskualde nagusia eratzeari, gero eta handiagoa den eskari globalizatu baten bultzadarekin, gaur egun planeta-mailakoa eta milioi askokoa den industria baten barruan.

1. *Kakao* hitzaren jatorria *ka'kaw* da («kakahua» ahoskatua) eta *txokolate* hitzarena *xocolatl* (maien hizkuntzako *chocolhaa* hitzetik eratorria, «ur mingotsa» hitzez hitz), jatorriz kakaotik ateratzen zen edaria izendatzeko. Lehen kakao-sailak eta txokolate-forma primitiboak maien eta olmeken zibilizazioen garaioak dira. Labore-mota hori mexikek jaso eta hobetu zuten geroago, mende batzuk igarota aipatutako herriak bizi ziren lurraldeak okupatu baitzituzten. Mexikak nahuekin lotura duten herri indigena bat dira, baina, alabaina, *azteka* izenaz dira ezagunagoak, Mendebaldean bereziki, izaera kolonialistako historiografia tradizionalak egin zuen interpretazio oker baina zabalduaren ondorioz.

2. Taninoak substantzia organiko batzuk dira, berezko usain arin bat eta zapore mingots eta lakar bat dutenak, eta landareen heldu gabeko fruitu askoren kanpo-azalean egoten dira. Batzuk onuragarriak diren arren, gehienak toxikotasun zerbait dute, eta fruitua digeritzea zailtzen dute. Izan ere, landareek animalia belarjaleen aurka duten babes-sistema bat dira, janari hori baztertzea eragiteko.



GUADALUPE DE LA VALLINA MARTÍNEZ-OFAMI INTERMÓN

Barietateak eta kakaogintzarako baldintzak

Kakao-arbolak behar dituen baldintzak beroa (21 gradu zentigradutik 32ra bitarte), hezetasuna (urtean 1150 mm eta 2500 mm arteko prezipitazioak), materia organiko askoko lurzorua, eta haizetik zein eguzkitik babestuta egotea dira. Horregatik, tropiko arteko eskualdeetan hazten da eta, gehienetan, beste zuhaitz handiago batzuen itzalpean; batez beste, bost metrotik 10 metrora bitarteko garaiera izaten du.

Gaur egun, kakaoaren hamar **barietate** genetiko ezagutzen dira, baina hiru dira ohikoenak: *criollo*, *forastero* eta aurreko bien hibridoak.

- **Criollo kakaoa:** Erdialdeko Amerikan, Andeetako eskualdean, Kariben eta Indiako Ozeanoaren aldean gehien hazten den barietatea da. Kakao-arbolak ahulak eta errendimendu gutxikoak dira, baina kalitate handiko kakao bat ematen dute, oso lurrintsua eta tanino gutxikoa². Hori dela eta, txokolate finenak egiteko gehien erabiltzen den barietatea da, baina munduko ekoizpenean pisu gutxi izanik (% 5 gutxi gorabehera).

- **Forastero kakaoa:** *campesino* kakaoa ere baderitzo, eta munduan gehien landatzen dena da (% 90 inguru), Brasilen eta Mendebaldeko Afrikako ekoizpen handiko herrialdeetan bereziki. Criollo kakaoak ez bezala, barietate honen bereizgarria da azal lodi eta zaileko alea izatea, baina lurrin gutxikoa; hori konpentsatzeko, gehiago txigortzen da.
- **Hibridoak:** nahiz eta aurreko bi barietateak XVIII. mendean geroztik gurutzatzen ari diren, azken hamarkadetan aurreratu da gehien arlo horretan (gaur egun munduko ekoizpenaren % 5 dira). Hibrido ezagunena eta erabiliena *trinitario* delakoa da. Horren emaitza *forastero* kakaoaren sendotasuna eta *criollo* kakaoaren zapore finagoa nahasten dituzten fruitu batzuk dira; bitarteko kalitatea duten uztak sortzen dira, eta errendimendu handiagokoak (1.000 kilogramo ere hektareako urtean, beste bi barietateek batez beste ematen dituzten 500 kilogramoen aldean).

Oro har, bi kakao-mota bereizten dira, kalitatearen arabera, nazioarteko estandar batzuei jarraituz finkatuta: *oinarrizko kakaoa* edo mordokakoa; eta *kakao fina* edo lurrinduna. Bi mota horiek arestian ikusitako bi barietate genetiko nagusiekin bat etortzen dira gehienetan: alegia, *criollo* kakaoa, kalitate handiagokoa, kakao fin eta lurrindunaren jatorria izaten da, eta *forastero* kakaoa, aldiz, gehienbat oinarrizko kakaoa egiteko erabiltzen den barietate da.

Landatzen direnetik, kakao-arbolak lau urtez luzatzen dira bederen fruituak ematen hasi arte, eta ez dira errendimendurik handienera iristen 10 urteko bizitza bete arte. Horrek nekazariari munta handiko inbertsioa eragiten die, fruituak askoz lehenago ematen dituzten beste labore batzuen ordez, lurra kakaoa landatzeko erabiltzeak dakarren aukera-kostuagatik. Horrek bereziki garrantzitsua da kontuan hartzen badugu kakao-ustiategi gehienak tamaina



IDEAS

txikikoak direla eta, hortaz, erabilgarri duten lurra ondasun eskasa dela.

Landare hori eta haren fruituak kontsumoko ondasun bihur daitezten, kakaoak haren ekoizpen-katea osatzen duten hiru faseetatik igaro behar du, eta hauek dira, hain zuzen: uzta-bilketa, ehoketa eta azken eraldaketa.

Uzta-bilketa

Kakao-fruitua urte osoan zehar heltzen da, baina bi **uzta** egin ohi dira: uzta nagusia (edo *uzta handia*) eta tarteko beste bat (*uzta txikia*). Uzta nagusiari urtaro euritsuaren bukaeran ekiten zaio, eta urtaro lehorra hasi arte irauten du. Tarteko uzta hurrengo euritearen hasieran abiatzen da. Uztaldi bakoitza bizpahiru hilabetekoa izaten da oro har. Barietate hibridoek igorazi egin dute uztatik uztara eskuratzen den bilketa eskasaren errendimendua.

Kakao-fruitua luzanga da, artaburua bezala (izen hori ematen diote, hain zuzen, eskualde ekoizle batzuetan), eta kilo erdiko pisua izaten du gutxi gorabehera. Uzta-bilketan, funtsezkoa da fruituaren heldutasun-maila ongi zehaztea, kakao-arbolatik une egokian zein bildu behar diren hautatzeko. Produktuak azkenean izango duen kalitatea hautaketa horren mende dago neurri handi batean. Horregatik behar da langile ugari uztako asteetan, biltzeko prest egonda, kakaoa galtzea eragozteko.

Fruituak azal zimurtsua eta trinkoa du, eta barruan mami arrosa eta gozo bat dago, 50 hazi ere eduki ditzakeena. Hazi horiek baba zuri, mamitsu eta luze baten forma dute, eta txokolatea egiteko erabiltzen diren aleak dira (*maraca*). Fruitua heldua dagoenean, buru bakoitza kontuz moztu da, banan-banan, eta, kakao-arbolatik kenduta, luzetara irekitzen da matxete batekin. Koilara-moduko batekin, haziak ateratzen dira inguruan duten mamiarekin batera; piloetan jarri, eta bildu egiten dira (tradizioz, bananondo-orrietan) hainbat egunez, hartitzeko.

Hartiduraren helburua da kakao-aleen berezko zapore mingots eta lakarra gutxitzea, eta, gainera, lurrin-aitzindariak gara daitezten laguntzen du. Hala ere, zenbaitetan prozesu hori ez da egiten, gustu-hobespenak direla eta. Hartidura izan zein ez, lehen fase honetako azken pausoa aleen **lehoketa** da (eguzkitan edo, plantazio teknifikatua-goetan, bero artifizialez); hainbat egunez egiten da, eta bitartean eskuaretu egiten da. Hain zuzen ere, arrunki kakao-aleak aipatzen direnean, hartzitu eta lehortu ondorengo haziez hitz egiten da egiaz, eta prozesu horretan tamaina handitzen zaie, pisua galtzen dute, eta beren kolore marroi-gorrixka berezia hartzen dute.

Ehoketa

Behin lehortuta, kakao-aleak errotetara bidaltzen dira (*grinder* deritzenak, eta izen generiko bera ematen zaie enpresei ere), eta han erabileraren eta helburuaren arabera hautatzen eta banatzen dituzte aleok. Nekazariak ez diete ekoizpena zuzenean saltzen *grinder* horiei, bitartekari bat egoten da eta (kakaoa hazten den herrialdean enpresa horiek duten erosketa-zentrala izan daiteke, edo bestelako eragile pribatu batzuk, ekoizleen eta erroten artean bitartekari dihardutenak).

Ehoketak (*grinding* esaten zaio) zenbait fase ditu: lehenik, aleak **garbitu**, **txigortu** eta **eskuilatu** egiten dira, azala galarazteko eta lurrina aska dezaten. Azalak eta beste ezpurutasun batzuk lorategietarako konpost gisa erabiltzen dira askotan, edo kalitate txikiko gurinak egiteko (*Cocoa* izendapen komertziala ematen zaie).

Aleak txigortuta eta ezpurutasunez gabetuta daudenean, ale-barietateak lortu nahi den produktuaren arabera **nahasten** dira. Prozesu horrek berebiziko garrantzia du, baldin aleen helburua txokolate bihurtzea bada, han zaporea eta testura kontuzkoagoak baitira kakao-hautsa egitean baino. Geroago txokolate-mota ezarriko duten kakao-aleen motak sendoetan eta arinetan bereizten dira, tartean aldaera ugari dagoela. Nahastura *grinder* delakoan sartzen da, eta zenbait **errotak** aleak ehotzen dituzte 60 eta 80 gradu zentigradu artean; horrela, **kakao-likorea** sortzen da, kakaoaren deribatu guztien oinarria, hain zuzen (ez du alkoholik, izena gorabehera).

Kakao-likorea findu, eta zuzenean sal daiteke sukalderako txokolatetzat (mingotsa eta koipetsua) edo, gehienetan egiten denez, prozesatzen jarrai daiteke, eta txokolatea egiteko erabiltzen da. Azken kasu horretan, kakao-likorea prentsa hidrauliko batzuetan sartzen da, kakao-gurina eta kakao-orea bereizteko. **Kakao-gurina** jateko koipe bat da, txokolate-lurrin eta -zapora arina duena. Gainerako **kakao-orea** koipe gutxiko ore bat da (ezin du eduki % 20tik gorako gurina). Solidotzen denean, kakao-ore hori hauts bihurtzen bada, **kakao-hautsa** lortzen da (ez nahastu txokolate-hautsarekin). Bestela, hala gurina nola ore hirugarren eta azken ekoizpen-fasera igarotzen dira.



GUADALUPE DE LA VALLINA MARTÍNEZ-OXFAM INTERMÓN

Azken eraldaketa

Txokolatea kakao-gurina eta kakao-orea hainbat proportziotan azukrearekin **nahastean** lortzen den emaitza da. Nahastura birrindu eta findu egiten da, eta ore mehe bat lortzen da. Ore horri **kontxatze**-prozesua egiten zaio, arrabol batzuekin irabiaturik eta zabaldurik, gurinaren urtze-puntutik gorako tenperaturetan, nahasturak likido eta malgu iraun dezan. Kontxatze horren tenperatura eta iraupena (ordu gutxitik hiru egun osora bitarte) lortu nahi den txokolate-motaren arabera izango dira (zenbat eta gehiago irabiatu, orduan eta zakartasun gutxiagoko ore).

Azkenik, ore hori **tenplatu** egiten da, hots, berotu, hoztu eta atzera ere berotu egiten da gurinaren kristalak hautsi eta berriz elkartzeko; horrela, txokolate onen bereizgarri diren karraska-hots eta distira bereziak lortzen dira.

La txokolate-mota guztiek daramate lurrintzaileraren bat (gehienetan banilla edo haren deribaturen bat), bai eta emulsionatzailearen eta egonkortzailearen bat ere (sojalezitina kasu), osagaien % 1 gainditu gabe oro har. Nahastura horri ez bazaio beste produkturik gehitzen, eta kakao-orea guztiaren % 50 baldin bada gutxienez (% 99 ere izan daiteke), **txokolate beltza** izango dugu orduan. Hortaz, txokolate batek daukan kakao-ehunekoaz hitz egiten dugunean, egiaz kakao-orearen proportzioaz ari gara.

Esnea gehitzen bada (berria, kondentsatua edo esne-hautsa) eta kakao-orearen proportzioa gutxitzen bada (% 40tik behera gehienetan), **txokolate esneduna** lortzen dugu, kakaoaren deribatu zabalduena. Bai txokolate beltza bai esneduna beste produktu batzuekin batera aurkez daitezke, eta hala izaten da (laranja, menda, mugurdiak, fruitu lehorrak, eta abar).

Gozogintzan erabiltzen den **estaltzeko txokolatea** beltza edo esneduna izan daiteke, baina kakao-gurinaren ehunekoa handiagoa da. **Txokolate-hautsa** eta **egiteko txokolatea**, bata zein bestea esnetan disolbatzekoak, nahastura bat dira, kakaoa (% 50 baino gutxiago oro har) eta beste produktu batzuk dauzkana, besteak beste, fekula (arto-irina edo antzekoak). Azkenik, **txokolate zuria** XX. mendean asmatuiko gozoki bat da, kakao-gurinez, azukrez eta esnez egina; hartara, ez dauka kakao-orearik (txokolatearen «purutasun»-maila ezartzen duten kakao-likorearen osagai solidoak).

Txokolatea ez ezik, kakaoa beste produktu asko ere egiteko erabiltzen da. Batzuk oso ezagunak dira, hala nola industrian irabiakiak, pastelak, bonboiak edo postreak egiteko erabiltzen duten kakao-hautsa. Baina kakao-gurina tabakoaren, xaboiaren edo kosmetikoen ekoizpenean ere erabiltzen da, bai eta medikuntza tradizionalan eta parafarmazian ere. ●

3. Kakaoaren merkatua

Balio-katea: nola banatzen duten pastela

Mundu guztiko urteko txokolate-salmentak 100.000 milioi AEBko dolarretik gorakoak dira, etengabe hazten ari den eskari batek bultzatuta (batez beste % 3ko hazkundea urtean). Herrialde bat balitz, txokolate-salmentak munduko 60. postuko ekonomia lirateke, Tunisiako, Bulgariako edo Kroaziako nahiz beste 130 herrialdetako BP-Garen gainetik. Azken salmenta horiei gehitzen badiegu kakao-arbolen laborantzak, alearen tarteko banaketak, kakao-ekoizpenak eta txokolatea ez diren beste deribatu batzuk egiteak eta merkaturatzeak sortzen duten balioa, globalizaturik dagoen milioi askoko industria bat dugu aurrean.

Hala ere, lehen deskribatu diren kakaoaren hiru ekoizpen-faseak (uzta-bilketa, kakaoaren ehoketa, eta txokolatea edo beste deribatu batzuk prestatzea) ez dira modu orekatuan banatzen, ez geografiaren aldetik, ez prozesuaren kontrolaren aldetik edo prozesu horrek sortzen duen balio erantsiaren banaketaren aldetik.

Kalkulatzen denez, munduko kakao-ekoizpenaren % 90 baino gehiago familien plantazio txikietatik dator; plantaziook, batez beste bi eta bost hektarea bitarte izaten dituzte, eta lantzen dituztenen jarduera nagusia zein sarriera-iturri nagusia dira. Kakaoa hazteko eta biltzeko zuzenean bost-sei milioi pertsona bitarte enplegatzen dira, eta, zeharka, beste 14 milioi. Kalkulatu da, guztira, 50 bat


milioi pertsonak dutela mundu guztian beren bizimodua lehen sektoreko jarduera horri lotua.

Hala ere, horrenbesteko kopurua osatu arren, milioika ekoizle txiki horiek ia ez dute erabakitzeko ahalmenik kakaoa ekoizteko eta saltzeko prozesua erabakigarriak diren aldagaietan. Balio-katean hainbat eragilek esku hartzen dute. Bi muturretan, milioika kakao-ekoizle txikiak eta txokolate zein ale gorrixka horietatik deribatutako beste edozein produktu erosten dituzten ehunka milioi kontsumitzaileak daude kokaturik.

Merkataritza-katearen bi muturren artean, beste eragile batzuk ditugu:

- **Bitartekariak:** errota-enpresei (*grinder*) saltzeko, ekoizpena nekazariei erosten dieten *traderrak* direla zein gerokoen merkatuetan uzten prezioarekin espekulatzen duten *brokerrak* direla.
- **Grinderrak:** aleak kakao-likore bihurtzen dutenak eta azken horretatik bi deribatu nagusiak (kakao-orea eta kakao-gurina) ateratzen dituztenak.
- Bi deribatu horiek nahasten dituzten **fabrikak**, txokolatea edo beste edozein deribatu ekoizteko, elikagaien, kosmetikoen, tabakoaren edo farmaziaren industrietarako, azken ontziratzea ere haiek egiten dutela oro har.
- Handizkako enpresa **banatzaileak:** produktu horiek azken salmenta-kanaletara eramaten dituztenak.
- **Saltokiak** (dendak, supermerkatuak, etab.): kontsumitzaileek ondasun horiek eskuratzen dituzten tokiak, hain zuzen.
- Eta prozesu horretan guztian zehar, **garraiolariak**, tarteko fase eta produktuak lotzen.

Gutxi gorabehera, 50 milioi pertsonaren bizimodua dago zuzenean edo zeharka loturik kakaogintzari



Iturria: geuk egina, Cocoa Barometer 2012 oinarri hartuta

Katearen tarteko maila horiek guztiek, bereziki ekoizpen-prozesuaren azken bi faseei dagozkienek (errota-enpresak eta txokolate-enpresak), kontzentrazio handia dute bereizgarri: enpresa gutxi batzuek menderatzen dute etapa horietako bakoitza. Zazpi *grinder* edo errota-enpresak kakao-produktu erdilanduen industriaren % 76 kontrolatzen dute mundu guztian³. Izan ere, talde txiki horretako lau enpresa nagusiak munduko ekoizpenaren erdia kontzentratzen dute.

Enpresa horiek erosten dizkiete, bitartekariak erabiliz, kakao-aleak ekoizleei. Azken horiek ez dira antolatuturik egoten, eta informazio gutxi izaten dute haien plantazioetatik urrutit gertatzen den prozesuaren gainerakoaz. Enpresa horien erosketen bolumenak negoziatzeko botere handia ematen die kakao-ekoizleen gainean, jarduerak sortzen dituen etekinak banatzean balantza enpreson alde jarrita.

Txokolate-industriari dagokionez, kontzentrazioa antzekoa da: enpresa gutxi batzuek, gehienak jendearen oso ezagunak direla, txokolateen eta beste kakao-deribatu batzuen azken ekoizpenaren zatirik handiena kontrolatzen dute. Bost firma nagusiak⁴ mundu guztiko txokolate-salmenten % 60aren baino gehiagoren atzean daude, bakoitzak dozenaka produktu, askotarikoak eta jendearen oso ezagunak direnak, kontrolatzen dituztelarik. Zenbaitetan, *grinder* direlakoan eta txokolate-enpresen

arteko muga lausoa da, hainbat izenen atzean korporazio transnazional berak ezkututzen baitira.

Ekoizpen-katearen mailen arteko boterearen eta balioaren banaketa desorekatu horrek badu, orobat, isla geografiko bat: horrela, batetik, kakaoa herrialde tropikal txirotuetan hazten da, eta, bestetik, aldiz, tarteko eraldaketa eta txokolatea azkenik egitea herrialde aberastuetan gertatzen da, oro har. Nahiz eta egia den azken urteotan kakaogintza-eskualdeetan kokaturik dauden errotak gehitu direla, hori ez da barne-garapeneraren ondorio izaten, baizik eta errotak herrialde horietara deskokatzeko prozesu baten ondorio, transnazionalak, horrela, ekoizpen-kostuak murriztu nahi baitituzte, eta modu basan kontzentratuturik dagoen merkatu batean lehiakortasuna bereganatu⁵.


Ez du zentzu handirik, hain zuzen, enpresa transnazional horien ustezko nazionalitatean arreta jartzeak, edota txokolate-katearen ekoizpen-zentro bakoitzaren kokapen geografikoan. Merkataritza-bidez kotasunaren ardatza duen ikuspegi batetik, axola beharko ligukeen da zein baldintzatan –lanaren, gizartearen zein ingurumenaren aldetik– hazten, ekoizten eta merkaturatzen den kakaoa, bai eta haren deribatuak ere, ekoizten diren tokia gorabehera. Giza eta ingurumen-eskubideen mapak ez ditu ez muga geografikoak ez muga politikoak jasotzen, bidez kotasunarenak eta bidegabekeriarenak baizik.

3. Bloomer (% 15), ECOM (% 12), Archer Daniels Midland ADM (% 11), Barry Callebaut (% 10), OLAM (% 10), Armajaro (% 10) eta Cagill (% 8). Iturria: Cocoa Barometer 2012.

4. Bost txokolate-enpresa transnazional nagusiak hauek dira: Mars, Mondelez-Kraft, Nestlé, Hershey eta Ferrero. Iturria: Cocoa Barometer 2012 eta ICCO (2012).

5. Oxfam Intermón erakundeak ondo dioenez, EBk muga-zergak kendu dizkie «aurrerapen gutxiagoko» herrialdeei, elkartzeko ekonomikorako hitzarmenen (EPA) bitartez eta beste araudi komertzial batzuen bitartez, ekonomia globalean txerta daitezkeen errazteko aitzakiarekin. Kakaoaren sektorean, hitzarmen horiek Iparraldeko errota-enpresak Afrikako herrialdeetan koka daitezkeen erraztu du. Katalogazio horretatik kanpo dauden herrialdeak (Malaysia, Indonesia eta Brasil batik batik) tokiko industriak garatu dituzten herrialdeak dira, eta halakoei muga-zerga gogorak aplikatzen zaizkie oraindik, Europako industria babesteko helburuz. Berriz ere, araudiak, garapenerako politiken mozorroa jantzita, Iparraldeko industriari egiten diote mesede; izan ere, alde batetik, Hegoaldeko industriak lehiatzea zailtzen dute eta, bestetik, Iparraldeko industriak deskokatzeko sustatzen dute, kostuak murrizturik horrela. Iturria: Oxfam Intermón (2013)

Kakaoaren balio-kateko inbutu hirukoitza⁶



Iturria: geuk egina

Jasotzen dituzten diru-sarrera apalen ondorioz, pobrezia-atalasearen oso azpitik daude kakaogileak

Enpresek gero eta neurri handiagoan kakaoa jatorrian eraldatzen dute eta azpiproduktuak herrialde aberastuetara esportatzen dituzte, edo goraka ari diren *grinder* eta txokolate-enpresen artean egon badaude egoitza soziala Hegoaldeko herrialderen batean duten firmak, baina horrek ez du ezer aldatzen, balio-katean dauden desorekek bidegabekeria-mota berak sortzen jarraitzen badute.

Hala, bada, nazionalitatea edo kokalekua gorabehera, tarteko etapak menderatzen dituzten eragile gutxi batzuen botere eskerga alde itzela ateratzen dio merkataritza-katearen bi muturretan daudenen –hots, ekoizleen

eta kontsumitzaileen– erabakitze ahalmen eskasari. Berriz ere, nazioarteko merkataritzaren inbutu bikoitz ezagunarekin topo egiten dugu; horri, gainera, aurretiko beste bat gehitu beharko litzaioke, baliabide natural mugatu eta gero eta eskasagoen inbutua, pertsonen edozein jarduerak ingurumenari loturik duen alderdia ikusi ahal izateko horrela.

Non hazten den kakaoa: herrialde ekoizleak

Boli Kosta eta Ghana dira % 59aren jatorria, planeta guztian hazten den kakaotik. Ondoren Indonesia, Nigeria eta Kamerun datoz. Bost herrialde horiek, elkarrekin, munduko uztaren % 82 biltzen dute⁷. Ia kakao-landetxe guztiek (% 98) bost hektareatik beherako azalera dute, eta munduko kakao-ekoizpenaren % 90 ematen dute. Ekoizle txikiak dira, oso baldintza gogorretan beraien eskuek bildutako kakaoarekin egiten den txokolatea bakanetan dastatzen dutenak; kakao hori saldurik, gainera, diru-sarrera guztiz eskasak lortzen dituzte, eta pobrezia-atalasearen azpitik uzten dituzte, oso.

Ghanan, muturreko pobrezia-atalasetik ateratzeko beharrezkotzat jotzen den diru-sarreraren erdiekin baino gutxiagorekin bizi da batez besteko kakao-lantzaile

6. Milaka ekoizle baliabide mugatuak, gero eta eskasagoak, lantzen eta erabiltzen dituzte (lehen inbutua), baina azken eraldaketan eta banaketan enpresa gutxi batzuek baino ez dute parte hartzen (bigarren inbutua), eta horiek helarazten dizkiete produktuak milioika azken kontsumitzaileei (hirugarren inbutua).

7. Cocoa Barometer (2012)

bat, eta pobrezia-muga gainditzeko beharko liratekeen diru-sarreren heren batekin baino gutxiagorekin. Boli Kostan, munduan gehien ekoizten den herrialdean, kakaogile txikiek, uzta salduz, gaur egun baino 10 aldiz gehiago jaso beharko lukete, horrela muturreko pobrezia mugara iristeko bederen, eta orain baino 16 aldiz gehiago pobrezia estandarren muga gainditzeko⁸. Pobrezia orokortuko egoera horrek eragiten dituen zenbait emaitza eta ondorio buruz arituko gara aurrerago.

Non egiten den txokolatea: herrialde inportatzaile eta eraldatzaileak

Gaur egun, munduan lau milioi tona kakao-ale ekoizten dira, eta kopuru horrek ez dio utzi hazteari azken hamarkadetan, nahiz eta hazkundera ez dio beti jarraitzen eredu lineal bati (azken urteetan, uzta-gehitzeak eta uzta-gutxitzeak txandakatu dira). Hazkunde hori argiago ikusteko, esan behar da 1960an mundu guztian milioi bat tona kakao baino ez zela ekoizten eta duela hamarkada eskas bat munduko ekoizpena ez zela hiru milioitik gorakoa⁹.

Kakaoa zona tropikaletan baino ez da hazten, eta ekoizpen gehiena herrialde gutxi batzuetan sortzen da; errota, aldiz mundu guztian zehar sakabanaturik daude. Europan ez da kakao-alerik hazten, baina, hala ere, bertan biltzen dira *grinder* gehienak (guztien % 40). Hurrengoak Asia (% 23) eta Latinoamerika (% 22%) dira, eta, azkenik, Afrika (% 16) dago, nahiz eta aleen % 70ek kontinente horretan izan jatorria. Munduko kakao-ekoizpenaren % 40 baino ez da ehotzen hazten den herrialdeetan; dena dela, joera hori zuzentzen ari da pixkanaka. Gainerakori dagokionez, alea zuzenean urrutiko beste toki batzuetako errotetara esportatzen da.

Guztizko bolumenaz gain, garrantzitsua da aztertzea zenbateraino dagoen herrialde ekoizlea kakao-esportazioen mende, horrela zehaztu ahal izateko nazioarteko prezioaren edo kanpo-eskariaren edozein aldaketak izan lezakeen inpaktua, ez bakarrik kakaogileen artean, baizik eta tokiko ekonomian, oro har. Boli Kostan, Ghanan edo Kamerunen, kakao-esportazioak kanpo-merkataritza guztiaren % 34, % 23 eta % 18 dira, hurrenez hurren¹⁰. Alabaina, Nigeriaren edo Indonesiaren kasuan, hots,

beste bi herrialde ekoizle handien kasuan, kakaoa ozta-ozta esportazio guztien % 1 da.

Kakao-salerosketan aleak berak zein kakaoaren tarteko produktu batzuk (kakao-orea eta/edo kakao-gurina) sartzen dira, edo, zuzenean, haren azken deribatua (txokolate-eran gehienbat). Kakao-aleen inportatzaile nagusiak Herbehereak, Ameriketako Estatu Batuak eta Alemania dira. AEB da lehena kakao-gurinarekin nahiz kakao-orearen inportazioan, tokiko txokolategintza-industria handia dauka eta, eta ondoren Alemania eta Frantzia datoz inportazioetan. Eta Frantzia bera da, hain zuzen, jateko prest dagoen txokolate landuaren inportatzaile handiena, atzetik Alemania, Erresuma Batua eta AEB doazkiola oso hurbil. Espainia zortzigarrena da munduan kakao-aleen herrialde inportatzaileen artean, zazpigarrena kakao-orea inportatzeari dagokionez, eta seigarrena txokolate-inportazioetan¹¹.



IDEAS

8. *Op. cit.*

9. Tona bat kakaorekin 100 gramoko 7.000 txokolate-tableta inguru egiten dira.

10. FAOren datuak, ICCOn (2012) aipatuak

11. *Op. cit.*

Non kontsumitzen den txokolatea: gero eta handiagoa den eskari global bat

Txokolate-kontsumoa –eta, beraz, kakao-kontsumoa– eten-gabe ari da hazten mundu osoan. 2013ko uztan, dagoneko, eskariak munduko kakao-ekoizpena gainditu zuen, eta, espero denez, hurrengo urteetan ez dio utziko hazteari. Horren ondorioa da stocka gero eta murriztuago egotea eta eskaintzaren gaineko presioa gero eta handiagoa izatea. Azken hamarkadetako handitzeko bilakaeraz gain, hurrengo aldirako sektorearen analisi guztiek aurreikusten duten goranzko eskaria gehitu behar da, % 3ko urteko hazkundearekin.

Europarrek mundu guztian ekoizten den txokolatearen erdia kontsumitzen dute (% 48). Ondoren Ipar Amerika (Ameriketako Estatu Batuek % 20, eta Kanadak % 4), Asia (% 15) eta Latinoamerika (9%) datoz. Afrikak, kakao-ekoizle nagusiak, planeta guztian egiten diren txokolatearen eta beste deribatu batzuen % 3 baino ez du kontsumitzen. Gaur egungo nazioarteko merkataritzaren argigarria bezain paradoxikoa: lanik mingotsena egiten dutenek ez dute dastatzen hartatik ateratzen den produktu gozoa.

Per capita adierazita, urtero batez beste 0,61 kilo txokolate jaten du pertsona bakoitzak. Jakina, zenbaki horrek desberdintasun handiak ezkututzen ditu lurraldetik lurraldera. Kakaotik deribaturiko produktuen eskaria handia, sendoa eta egonkorra da hainbat hamarkadetatik hona Mendebaldeko Europan eta Ipar Amerikan. Duela gutxi zenbait azterlanen arabera, britainiarren % 90ek ohikotasunez hartzen du txokolatea¹².

Munduko herrialde txokolatezaleenak Alemania, Suitza eta Erresuma Batua dira: gutxi gorabehera 11 kilogramo

biztanleko urtean. Hurrengoak, Norvegia, Danimarka eta Austria dira (zortzi eta bederatzik kilogramo bitarte). Espainian, herritar batek 3,6 kilogramo txokolate kontsumitzen ditu urtean, batez beste, eta azken hamarkadan egonkor iraun duen kopuru bat da hori¹³.

Suspertzen ari diren herrialdeetan –Asiako eta Ekialdeko Europako zenbait herrialdeetan edo Brasilen– sortzen ari den goranzko eskariak eragiten du egungo bultzada. Brasil, hain zuzen ere, historiako esportatzaile nagusietako bat izatetik ekoizten duen adina herrialde-barnean kontsumitzera igaro da. Asian, txokolatea oso bazterreko tokian egon da jendeak gogoko zituen produktu gozoen artean. Egun, Indian ozta-ozta 165 gramo kontsumitzen dira urtean pertsonako, batez beste; eta Txinan, bestalde, ez dira gainditzen 100 gramoak urtean biztanleko¹⁴. Hala eta guztiz ere, espero da eskualde horietan txokolate-eskariak gora egingo duela epe ertainean, suspertzen ari diren herrialde horietan erdiko klaseak gehitzean eta Mendebaldeko kontsumo-ohiturak globalizatzean.

Horrela, gaur egun biltzen diren lau milioi tona kakao horiek ez dira aski izango 2020rako espero den bost milioi tonaren eskariari erantzuteko. Txokolate-enpresa transnasionalek dagoneko eman dituzte lehen pausoak eskariaren gehikuntza horri erantzuteko, plantazioen produktibitatea areagotzen saiatuz edo goraka ari den eskaritik hurbilago dauden herrialde ekoizleetan errotak jarriz (esaterako Indonesian, Asiako merkatua estaltzeko). Erantzun horiek ez dira, alabaina, erronkarik eta alderdi ilunik gabekoak, kakao-lantzaileen orainari zein etorkizunari begira, aurrerago ikusiko dugunez.

Zer dagoen kakaoaren eta txokolatearen prezioaren atzean

Beste edozein lehengairenak bezala, kakaoaren prezioak munta handiko eta etengabe gorabeherak jasaten ditu. 1980tik aurrera, jaitsiera sakon bat hasi zen, eta, horren ondorioz, 2000. urtean hasierako balioaren laurden batean kokatu zen. Orduz geroztik, joera alderantzizkoa izan zen, eta bikoiztu ere gin zen; gaur egun, baina, duela hiru hamarkadan zuen prezioaren erdian dago oraindik. Beheranzko joera horrekin batera, kakaogileek beren ekoizpena salduz jasotzen dituzten diru-sarrerak pixkanaka murriztu dira¹⁵.

Hala ere, eskaria etengabe igoko den aurreikuspenek eta antzeko eskaintza batekin erantzuteko zailtasu-

Afrikan munduko kakaoaren % 73 ekoizten da, baina txokolatearen % 3 baino gutxiago kontsumitzen da


12. www.franchisehelp.com/industry-reports/chocolate-industry-report

13. CAOBISCOren eta International Confectionery Associationen (ICA) datuak, ICCOn (2012) aipatuak

14. www.franchisehelp.com/industry-reports/chocolate-industry-report

15. Kakaoaren prezioaren bilakaeraz eta haren ondorioez informazio gehiago izateko, ikus Daviron B. eta Ponte S. (2005)

Figura 3. Kakao-alearen nazioarteko prezioa Londresko eta New Yorkeko burtsetan 1980-2013ko bilakaera (US\$/kg; 2010 oinarriko prezio errealak)



Iturria: geuk egina, ICCO eta World Bank oinarri hartuta

nak eragina izango dute prezio horretan. Kalkulatuenez, baldin eta ezer aldatzen ez bada, sortuko den eskariak kakaoaren prezioa gorantz bultzatuko du, hemendik 2020 bitarte bikoiztu arte, duela 36 urteko balioak berriz harturik¹⁶. Baina goranzko joera horrek, *a priori* onuragarria izanik ere ekoizleentzat, garrantziko bi ñabardura ditu, merkataritza-bidezkotasunaren ikuspegitik egindako azterketa batek ezin bazter ditzakeenak: hegakortasuna eta azken prezioaren partaidetza.

Epe ertain eta luzerako bilakaeraz gain, prezioen aldakuntza horiek ia egunero gertatzen dira. Egun batzuetan, salmenta-prezioa % 30 baino gehiago desbideratzen da dena delako urteko batez besteko prezioetik. **Hegakortasun** horrek berebiziko segurtasunik eza sortzen du kakaoaren balio-katean parte hartzen duten eragile guztientzat, baina nekazariarentzat bereziki, ez baitute ahalmenik geroko uztetan inbertitzeko edo prezio-aldakuntzen aurkako aseguruak eskuratzeko, kakao-alea erosten duten transnasionalek halakoak bai badituztela. Ia pentsaezina da salmentaren diru-sarrerak –gutziz eskasak, bidenabar– ekoizpenaren hobekuntzetan inbertitzea, uzta horren truke zer prezio jasoko den planifikatzea ere ezinezkoa denean.

Kontuan izan beharreko bigarren faktorea partaidetza da, edo, bestela esanda, merkataritza-kate guztitik ateratzen den produktuaren **azken prezioan eragile bakoitzak partaidetza izateko duen ahalmena**. Txokolate-tableta baten aldera ordaintzen dugun prezioan hauek sartzen dira: osagaiak, manufaktura, bildukina, ekoizpen-fase bakoitzeko eskulana, garraioa, publizitatea, eragile bakoitzaren irabazi-marjina, eta zergak. Kalkulatuenez da txokolate-tableta batek daukan kakaoagatik ordaintzen den prezioa tableta horren azken prezioaren % 10 baino ez dela. Baina kakaogileek are gutxiago jasotzen dute: ozta txokolate-barren azken prezioaren % 3 tik % 6ra bitarte¹⁷. Duela hamarkada batzuk, ehuneko hori % 16 ere bazen. Orduz geroztik, behera egin du beti, manufakturan eta banaketan aritzen diren enpre-

Kakaoaren prezioa nazioarteko merkatuen hegakortasunaren mende dago

16. www.reuters.com/article/2013/03/26/indonesia-cocoa-deficit-idUSL3N0C13Q20130326

17. Fairtrade Foundation (2011)

sen pastel-zatia –hots, merkataritza-katearen azken mailetako enpresena– gero eta handiago bihurtzen zen bitartean.

Baina, norik finkatzen du kakaoaren salmenta-prezioa? Beste oinarritzako produktu askorekin gertatzen den bezala, kakaoaren prezioa nazioarteko merkatuetan ezartzen da, batez ere Londresko eta, nagusiki, New Yorkeko burtsetan. Kakaoaren kotizazioan eragiten duten faktoreak hainbat dira: uztak (klima-aldagaien, izurrien, eta abarren mende); herrialde ekoizleen egoera politikoa (gatazka armatuak edo biltzen den kopuruari edo esportazioei eragiten dieten lege-aldaketak); nazioarteko eskaria; ekoizpen-faktoreak (langileak, lurrak, pestizidak, eta abar izatea); produktibitatea; plantazioetan eginiko inbertsioak; lehenagoko beste uzta batzuetatik geratzen den eta errotek metatuta dauzkaten ale-*stockak*; baina orobat, eta gero eta neurri handiagoan, gerokoen merkatuetako espekulazioa.

Beste sektore batzuetan gertatzen den bezala, desoreka horien atzean ezkututzen den paradoxa da balantza era-

gile gutxi batzuen alde jartzen dela, gehiengo zabala diren kaltetan, bestalde: milioika kakao-ekoizleen kaltetan, hain zuzen. Salmenta-prezioan eragina izateko ekoizleek duten zailtasunak –eta, azken batean, ezintasunak– bi faktore ditu atzean: nekazarien antolaketa eza, batetik, eta erosleekin duten mendetasun-harre-

Nekazari-kooperatibetan antolatuz prezio hobek eta saltzeko baldintza hobek lortzen dira

Zer ekarpen egiten ditu bidezko merkataritzak?

Erosleen negoziazio basatien aurrean –ia monopoliokoa den egoeraz baliaturik, ekoizleei ordaintzen dioten prezioa jaisten baitute–, bidezko merkataritzak elkarrizketan, gardentasunean eta bi alderdien arteko horizontaltasunean oinarritutako merkataritza-harremanak bultzatzen ditu hainbat hamarkadetatik hona. Bidezko merkataritzako kanaletatik salduta, kakao-gileek jasotzen duten **bidezko prezioak** funtsezko bi osagai ditu, ondoren azaltzen denez.

Batetik, **gutxieneko prezio** bat, prezio horren azpiko edozein prezio ekoizleei beharizan betetzea ahalbidetuko ez liekeela ulertuta, ez duintasunez bizitzeko moduan bederen. Gutxieneko prezio hori babes-sare bat da nazioarteko prezioak behea jotzen duen uneetan –etengabe gertatzen denez, bidenabar–. Gutxieneko horren gainetik kokatzen denean, bidezko merkataritzak ordaintzen duen prezioa erreferentzia horri egokitzen zaio, baina bigarren mekanismo bat ere sartzen da tartean: **garapen-sari** osagarri bat ordaintzea, komunitatearen ongizatean inbertitzeko helburua duena, ekoizleek berek demokratikoki erabakitzen dituzten proiektuen bitartez.

Bidezko prezio baten osagaiak gutxieneko prezio bat eta garapen-sari bat dira

Baina prezio horrez gain eta gizon eta emakumeentzat ekitatiboagoak diren diru-sarrerez gain, beste elementu onuragarri batzuk ere badaude bidezko merkataritzaren ekarpenen artean, kakaogileek beren lanaren truke jasotzen duten ordainsariari lotuak. Lehenik, **merkataritza-harreman egonkor eta iraunkorrak** sustatzen ditu; harreman horietan ekoizleek eta erosleek saltzeko baldintzak negoziatzen dituzte, eta hainbat urtean irauten dute. Hori funtsezko desberdintasuna da, nazioarteko merkatuaren inarrosaldikako izaerarekin erkatzen badugu, azken horrek inbertsioak ia egunero lekualdatzen baititu, errentagarritasun handienaren irizpideei bakar-bakarrik jarraituz, bere mugimendu espekulatiboen ondorioz batere axolatu gabe.

Merkataritza-harreman egonkor, horizontal eta gardenak, elkarrizketan oinarrituak

Bigarrenik, bidezko merkataritzan ordaintzaren zati bat aurreratzen da, baita uztaldia hasi baino lehen ere. Horri esker, kakao-lantzaileek ekoizpenerako hobekuntzetan inbertitu ahal dute, ohiko finantzaketa-bideetara jo behar izan gabe; gainera, azken horiek ez dira existitzen askotan, edo abusuzko baldintzak jartzen dituzte, ekoizleak zorpetze-zurrumbilo batean sartzen dituztenak.

Uztak aurrez finantzatzea, gaikuntza tekniko ematea eta ekoizleen antolaketak demokratikoki sustatzea

Azkenik, ekarpen gisa, bidezko merkataritzak ekoizleei **gaikuntza** ematen die arlo teknikoan, bai eta kooperatibetan **antolatzea** sustatzeko ere, horrela indarra lortzeko beste bazkide komertzial batzuekin beren uztak saltzeko baldintzak negoziatzeko garaian.

mana, bestetik. Lehen faktoreari dagokionez, har dezagun Ghanaren adibidea: munduko herrialde ekoizleen arteko bigarren den horretan, kakaogileen % 10 baino ez dago antolaturik nolabaiteko nekazari-elkarteren batean. Ekoizleak batuta dauden tokietan, balantza neurri batean berriz orekatzea erdiesten dute, eta salmenta-prezio hobeak ez ezik, merkataritza-harremana apur bat onuragarriagoa eta ekitatiboagoa izan dadin ere negoziatzea.

Uztaren salmenta-prezioan eragiteko, kakao-lantzaileek duten ahalmen urria esplikatzeko duen bigarren elemen-

tua da erosleekin duten mendetasun-maila. Ghana atzera ere adibidetzat hartuta, kalkulatzeko da kakao-ekoizleen % 80k erosle bakarrari saltzen diotela beren uzta. Eta kasuen erdietan, beti enpresa bera da. Eta, ikusi dugunez, kakaoa saltzea da nekazari horien sarrera-iturri nagusia, eskasa izan arren. Zaila da, beraz, salmenta-baldintza bi-degabeak berriz negoziatzea, ekoizpena saltzeko beste aukerarik aurkitzen ez denean eta norberaren bizimodu salmenta horrek dakartzan diru-sarreraren ia erabat mende dagoenean. Horrela, erosketa-prezioa kanpotik ezarrita etortzeaz gain, «edo hartu hau, edo ezer ez» egoten da inplizitua. ●

Zer dira geroko merkatuak?

Ekoizleek beren uzta saltzean jasotzen dituzten prezioez ari garenean, dela kakaoa, dela kafea, azukrea edo beste edozein lehengai, sistematikoki aipatzen da geroko merkatuek duten rola. Baina zer dira zehazki eta zergatik dira hain garrantzitsuak nekazari txirotuen bizimodurako? Lehen mailako ondasunak bi modutan saleros daitezke, nagusiki: behin eskuragarri daudenean (uzta bilduta), merkatuaren edo bitartekari baten bitartez saldurik; edo, bestela, geroko merkatu baten bitartez. Merkatu nagusiak Londresekoa (Liffe) eta New Yorkekoa (*Intercontinental Exchange* edo ICE soilik) dira.

Geroko merkatu horietan, izenak berak dioenez, lehengai-kantitate estandarizatu batzuk erosteko edo saltzeko konpromisoak izenpetzen dira (kasu honetan, lehengai hori kakao-aleak dira), eta halako ordainketa geroko une batean, akordioan bertan finkaturik, gauzatuko da. Mekanismo horren aurreneko forma XVI. mendean sortu zen, eta hasierako helburua lehengaien ekoizleek zein erosleek beren burua babestu ahal izatea izan zen, salerositako ondasunen prezioek izan zitezkeen gorabeheren aurrean, ohikoak baitziren. Horrela, erosketak eta salmentak hobeto planifika zitzaizketen, zuten aurrekontuaren arabera.

Alabaina, 1980ko hamarkadaz geroztik, lehengaiekin diharduten geroko merkatuak—beste sektore ekonomiko asko bezala—gero eta neurri handiagoan desregularizatu dituzte, eta onartu da geroko erosketen kontratu horiek nahi adina aldiz saltzea eta berrerostea, adosturiko inongo datatara arte edo ekoizpena eskuragarri egon arte itxaron beharrik gabe. Horrek atea ireki zuen oinarriko ondasun horren ekoizpen-katearekin inolako loturarik ez zuten hainbat eragilek geroko uztetan inbertitzen hasi zitezkeen merkatu horien bitartez, haien inbertsioen aterpe gisa edo etekin laster eta handiak eskuratzeko prezioen gorabeherekin, lehengaien geroko kontratuekin salerosketan jardunez horretarako; hau da, espekulatuz.

Lehengaiekin egiten den espekulazioak etekinak sortzen ditu gutxi batzuentzat, beste askorentzat adina arrisku

Horixe da inbertsio-funtsen, pentsio-funtsen edo banku pribatuen kasua; izan ere, ez dute batere zerikusirik ez kakao-ekoizpenarekin ez txokolategintzarekin, baina etekina ateratzen dute haiek inoiz zapalduko ez dituzten sail batzuetan oraindik landatu ez diren uzta batzuen kontratuak saleros. FAOren kalkuluen arabera, gaur egun, lehengai dagozkien geroko kontratuen % 2 baino ez da azkenean gauzatzen egiazko uzta-erosketa gisa. Gainerakoak aurretiko transakzio abstraktu batzuen xede dira, finantza-aktibo bat gehiago balira bezala. Har dezagun horren adibide argigarritzat Goldman Sachs inbertsio-bankuak 2009an lehengaiekin espekulatuz eskuratu zuen 5.000 milioi dolarreko irabazia: zenbateko hori urte hartan lortutako etekin garbi guztien heren bat baino gehiago izan zen.

Inbertitzaileentzako etekinez gain, mugimendu espekulatibo horiek are gehiago bizkortzen dute kakao-prezioak berez duen hegakortasuna—eskari eta eskaintza errealarri lotuago dauden beste faktore batzuen ondorioz—, eta horrek eragina du uneko salmenta-prezioan. Horren ondorioa da nazioarteko erreferentzia-prezioak are gorabehera bortitzagoak eta bat-batekoagoak izatea eta finantza-joko horretan jarduteko baliabide gutxiago dituztenen segurtasunik eza larriagotzea: ekoizle txiki txirotuek ikusten dute haien lana gehiago edo gutxiago balio duela espekulatzaileen interesen arabera, azken horiek halako egun batean kakaoan inbertitzen dutelako, biharamunean Europako herriren bateko zor publikoko bonoetan edo Hego-ekialdeko Asiako higiezin merkatuan inbertitzen duten bezala¹⁸.

18. Inbertsio-funtsek geroko merkatuetan egiten duten espekulazioak kakao-ekoizpen errealean dituen inpaktuak xehetasun handiagoz ezagutzeko, Fairtrade Foundation-en (2011) lanean *Futures markets and speculative trading* atala begira daiteke.

4. Desoreka komertzialak: inpaktuak eta alternatibak

Merkataritza-katean dauden desoreka horiek guztiak arriskuen, mendetasunaren eta desberdintasunaren iturri dira kate-maila ahulenentzat. Kakaogileek jasotzen dituzten diru-sarrera apalek eta horrek dakarren pobrezia ondorio bikoitza dute hasiera batean. Batetik, egoera horrek ez du irabazi-marjinarik uzten plantazioak hobetzen inbertitzeko; horrek uzten produktibitatea ez atzera ez aurrera atxikitzen du, zuzenean murrizten ez duenean. Beste aldetik, pobrezia nekazari-exodo bat eragiten ari da, orokorra kakaoringuruetan: inork ez du lan egin nahi oso gogorra eta oso gaizki ordaindua den sektore batean, bereziki gazteenek. Horrek argitzen du zergatik den 50 urtekoa, gutxi gorabehera, Mendebaldeko Afrikan kakaogintzan dihardutenen batez besteko adina, bizi-itxaropena ozta-ozta 60 urteak gainditzen dituen herrialde batzuetan¹⁹.

Nola aurre egin, orduan, gero eta handiagoa den kakaoeskari bati? Enpresa transnazionalen estrategiak bi bide nagusi ditu: plantazio-kopurua gehitzea eta badaudenen produktibitatea hobetzea. Hurren ikusiko dugunez, bi neurri horiek ez dira arriskurik gabekoak eta bidegabekeria berriak sortzeko aukerarik gabekoak. Eta aplikatzen diren bitartean, aurreko guztiaren ondorioa da, azken batean, kakaogileek presio handiagoa izatea ekoizpena gehi dezaten eta eskari handiagoari erantzun diezaioten.

Horrek beste koska bat estutzen ditu langile horiek jasaten dituzten lan-esplotazioko baldintzak, eta, areago, haurren lanaren eta esklabotzaren forma gaitzesgarriak larriagotzen ditu.

Haurren lana: gaitz jasanezin bat

Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LANE) kalkulatu duenez, egun haurren lanak 168 milioi neska-mutikori eragiten die mundu guztian, eta haietatik 85 milioi lan-esplotazioko baldintzetan daude²¹. Kopurua gutxitzen ari bada ere, gaitz unibertsala da oraindik ere, zuzenean edo zeharka gu guztioi dagokiguna, bizi garen munduaren izaera globalizatua dela bide.

Nekazaritzan biltzen da gehienbat haurren lan eta esplotazio hori (guztiaren % 59). Kalkulatu denez, Mendebaldeko Afrikan, hots, kakaoeskualde nagusian, 1,8 milioi haurrek parte hartzen dute nola edo hala kakaoa lantzen eta biltzen²², eta haietatik 284.000 langiletzat jo daitezke LANEren beraren arabera. Haurren lan gehiena Boli Kostan dago, munduko kakaoeskualde nagusian, hain zuzen, eta, kalkulatu denez, han 12.000 adingabe (gehiak 14 urtetik beherakoak) esklabotzako eta lan-esplotazioko

Boli Kosta: odolez zikindutako plantazioak

Boli Kostak, munduko kakaoeskualde nagusiak, hainbat hamarkada daramatza ezegonkortasun politikoko eta gizarte-gatazkako egoera batean. Horren ondorioz, azken urteetan milaka hildako eragin dituzten borroka armatuak gertatu dira. Lurra- jabetza eta, zehazki, kakaoplantazioen jabetza-tituluak dira, neurri handi batean, liskar zibil horien muin eta jatorria, kontuan izanda kakaoa dela ekonomia nazionalaren euskarri diren esportazio nagusietako bat. Har dezagun adibidetzat 2011ko martxoan Duékoué hirian gertaturikoak: 800 lagun inguru hil zituzten, eta horren kausa kakaosailen jabetzarekin lotu dute²⁰.

19. Cocoa Barometer 2012

20. Carro de Combate (2013)

21. LANEk ez du haurren lantzat jotzen umeek edo nerabeek egiten duten lan-jarduera oro, baizik eta, lanaldiaren iraupenagatik edo lanaren gogortasunagatik, haurtzaroz, duintasunaz eta hazteko ahalmenaz –haien garapen mentala eta fisikoa kaltetuta– gabetzen dituzten jarduerak. Informazio gehiagorako: www.ilo.org/global/topics/child-labour/lang-en/index.htm#a1

22. www.childlabor-payson.org/Tulane%20Final%20Report.pdf

baldintzetan erabiltzen dira lanerako²³. Gehiegikeriak eta pertsonen salerosketa jasanarazten dizkiete, eta 12 orduko lanaldiak egin behar izaten dituzte, eskolara erregulartasunez eragotzirik horrela. Haien zereginen artean, besteak beste, pestizidak erabiltzea dago, haien osasuna babesteko inolako neurririk jarri gabe.

Gizarte zibileko hainbat antolakundek –haietatik asko bidezko merkataritzaren mugimendukoak zirela– sustaturiko salaketek errealitate hori jendaurreko gai-zerrendan jarri zuten, eta herritarren, nazioarteko erakundeen zein gobernuen interesa erakarri zuen. Horrela, txokolate-enpresa nagusiek kakao-plantazioetan haurren lana zegoela aitortu behar izan zuten. Ameriketako Estatu Batuetan, 2001ean, Kongresuak kontrol-sistemak diseinatu eta abian jartzea onartu zuen, kontsumitzen zen txokolatea esklabo-lanik gabekoa zela bermatze aldera, bereziki haurren lanari zegokionez. Baina enpresek eginiko *lobby*ak proposamena Senatura iristea eta lege bihurtzea eragotzi zuen.

Ordainetan, sektoreko korporazio handiek borondatezko autokontrol-sistemak sustatzeko konpromisoa hartu zuten beren gain, plantazioetan «haurren lanaren forma okerenak», bakarrik, ez zeudela bermatzeko²⁴. Konpromiso horiek LANEren haurren lanari buruzko araudiari egokitu zitzaizkion, eta sei artikulutan ezarri ziren; artikulua-multzo horri *Kakaoaren Protokoloa* edo *Harkin-Engel* Protokoloa deritzo, azken hori jatorrizko legegintza-proposamena bultzatu zuten bi kongresukideen izenengatik²⁵.

Erreferentzia hori garrantzizkoa da, orduz gerotik txokolate-enpresa handiek protokolo horixe erabili dutelako lan-esplotazioagatik edo haurren esplotazioagatik egiten diren salaketei erantzuteko, bai eta arlo horretan egin den aurrerapenaren erakusgarri gisa ere. Lotesleak ez diren autokontrol-konpromiso horien ondorioz, enpresek berek sustaturiko zenbait berme-sistema eta kudeaketa-erakunde sortu dira, eta halakoen bitartez beraiek agindutakoak betetzen direla egiaztatzen saiatzen dira²⁶. Hala eta guztiz ere, horretatik guztitik ezerk ere ez du ekarri, gaur arte, aurrerapen nabarmenik.

Haurren lan behartua ezabatzeko epea –hasieran 2005ean jarria– atzeratu egin zuten txokolate-transnasionalek, 2008ra lehenik, 2010era gero, eta 2020ra arte azkenik. Enpresek kalkulatu dute urte horretan helburuaren % 70 lortua izango dutela eta ordurako ziurtatze-sistema independente bat izango dutela. Enpresa horiekin loturak dituzten ikerketa-zentroen adierazpen triunfalistengatik ere, inpaktuari buruzko ikerlan independenteek ezin izan dute frogatu, gaur egun arte, protokoloa artikuluetatik bat ere betetzen dela²⁷.

Lortutako emaitza eskasak zurrizko transnasionalek gehien baliatzen duten argudioetako bat da beren txokolate-tabletetan erabiltzen duten txokolatearen jatorria identifikatzeko zailtasuna, hori baldintza beharrezkoa izanik haurren lana erabiltzen duten plantazioak eta hori egiten ez dutenak bereizteko. Trazabilitatea eta kontu-

Zer ekarpen egiten ditu bidezko merkataritzak?

Haurren lana eta adingabeek kakao-plantazioetan pairatzen dituzten esplotazio- eta esklabotza-era basatienak ez dira gertaera isolatu eta saihestezinak, merkataritza-sistema bidegabe baten ondorio baizik, sistema horrek nekazariak lan-baldintza gogorretan eta pobrezian atxikitzen baititu. Ekoizpena oso prezio apalean saldu behar dutenez, ezin dute kontratatu soldatapeko langilerik lan gehien dutenean, eta, besterik ezean, familiakoengana jotzen dute. Adingabeak lanerako erabiltzen ez direnean ere, hurbil eskolarik ez egotea edo eskoletaraino joateko azpiegiturarik ez egotea, bai eta eskolatzeak batzuetan duen kostu handia ere, oztupo dira haurrek hezkuntza normaltasunez jaso ahal izan dezaten.

Bidezko merkataritzak haurren lanik ez egotea bermatzen du, eta hura sortzen duten kausei aurre egiten die

Bidezko merkataritzak, kakaoa haurren lanik gabeko plantazioetatik datorrela bermatzeaz gain, haurrak lanerako erabil daitezkeen sortzen duten kausen aurka ere jotzen du zuzenean. Bidezko merkataritzak ume horien aita-amei diru-sarrera hobe eta egonkorragoak ematen die, bai eta gaikuntza tekniko eta aurrefinantzaketa ere; horri esker, produktibitatea gehi dezakete, eta zor eramanezinak saihestu dezakete. Modu horretan, haur adingabeen lan-indarra erabili beharra motibaziorik gabe uzten dute. Aldi berean, bidezko merkataritzak kanal alternatibo horien bitartez saltzeagatik jasotzen duten garapen-saria proiektu komunitarioetan erabiltzera bultzatzen ditu ekoizleak, eta ekimenen ohikoenen artean eskolak eta irakasleak prestatzea egoten dira. Inpaktu positibo horiek guztiak denboran eta espazioan zabaltzen dira, merkaturatze alternatiboko sistema horretan parte hartzen duten ekoizleak berak gaiturik.

23. www.ilo.org/public//english//standards/ipecc/themes/cocoa/download/2005_02_cl_cocoa.pdf

24. www.childlabor-payson.org/FirstAnnualReport.pdf

25. Protokoloa hemen ikus daiteke: www.cocoainitiative.org/images/stories/pdf/harkin%20engel%20protocol.pdf

26. International Cocoa Initiative (ICI) deritzona nabarmentzen da: enpresa transnazional handiek finantzatu dute, eta Ghanan eta Boli Kostan sentsibilizazio-proiektuak eramaten ditu aurrera, ekoizleei seme-alabak plantazioetan lanean jartzeko asmoa kentzeko helburuz.

27. Payson Center for International Development and Technology Transfer delakoak egin dituen jarraipen-txostenak hemen ikus daitezke: www.childlabor-payson.org

Haurren lana ezabatzeko helburuz, transnazionalak bultzaturiko Kakaoareneko Protokoloa delakoak ez du batere emaitzarik izan

ematea alde aurretik leudeke arriskuan, beraz, kakao-orea egiteko, errotek hainbat jatorritako aleak nahasteko praktika aurrera eramaten dutelako. Argudio hori, alabaina, engainagarria da, kontuan izaten badugu enpresa horiek dauzkaten baliabide eskergak teknikoak baino ez den arazo bati aurre egiteko, are gehiago kakao-alea ehotzen duten *grinder* horien atzean dauden korporazioak txokolate-enpresak berak direnean.

Produktibitatearen makilatxo ez hain magikoa

Mundu guztian txokolate-eskaria gora egiten ari da, eta, horrekin batera, nekazarien gaineko presioa ere bai, kakao-ekoizpena gehi dezaten, hain zuzen. Sektoreko enpresa transnazionalen ikuspegitik, egungo erroka da badauden plantazioen produktibitatea gehitzea²⁸. Kalkulatuenez, Mendebaldeko Afrikan plantazioak izan lezaketen errendimenduaren % 30 eta % 50 artean baino ez daude, eta uztaren zati handi bat izurri-arazoaren ondorioz galtzen da²⁹. Korporazio horien arabera, nekazaritza-praktikak hobetzeak ekoizten den kakaoareneko kantitatea zein kalitatea handituko litzateke; gainera, nekazarien diru-sarrerak igoko lirake eta, horrela, merkataritza-katea haien alde berronkatuko litzateke³⁰.

Merkataritza-bidezkoatasunaren ikuspegitik, neurri horietako batzuk nahi izatekoak dira, ez bairik gabe, hala nola kakao-lantzaileen autoantolaketa sustatzeko deia, kooperatibetan edo antzeko egituretan, haien bitartez alearen salmenta baldintza onuragarriagoetan negoziatu ahal izateko, hori izanik bidezko merkataritzak hastapenetatik

egiten duen zerbait, eta bere funtsezko ezaugarrien artean daukana. Edo ekoizpena gehitzea plantazio-kopurua ugartzearen ondorio izan dadin galarazteko alternatiba gisa, ugartze horrek deforestazioa, lur-akaparamendua eta jabetzaren inguruko gatazka zibilak dakartzalako berekin. Baina beste neurri batzuek, hala nola pestizida indartsuagoak erabiltzeak edo uzten produktibitatea eta eraginkortasuna hobetzeko barietate hibridoak landatzeak, ñabardura eta arrisku nabarmenak dituzte atzean. Eta proposamen jakinez harago, proposamen horiek sustatzen dituen diagnostikoak hipokresia ezin ageriagoa du ezaugarri nagusizat.

Lehenik eta behin, produktibitate handiagoak ez luke automatikoki ziurtatuko salmenta-prezioak handiagoak izatea eta, beraz, kakaogileek diru-sarrera handiagoak jasotzea. Hori egia izan liteke merkatu perfektuko egoera batean bageunde, berdinaren arteko lehia batekin, eragile guztiek informazio bera eta erabakitze ahalmen bera edukita. Boteregune ekonomiko handiak zuzentzen dituztenek erabilitako ekonomia-eskuliburuetan baino ez da gertatzen hori. Errealitatea oso bestelakoa da. Lehen ikusi dugunez, ekoizleek ez dituzte kontrolatzen ez prezioa ez beren uzta saltzeko baldintzak. Ia erosle bakarraren mende daude, eta horrek berebiziko desorekak sortzen ditu negoziatzeko eta prozesuaren gainerakoan eragina izateko garaian.

Beste alde batetik, azkenean salmenta-prezioak benetan igoko balira, zalantzak sendoak dira igoera horrek ekoizpen-kostuen gehikuntza estaliko ote lukeen (hazi, ongari, lanabes berriak, lan-karga handiagoa, eta abar), alegia, igoera posible egiteko produktibitate handiagoak berak sorturiko kostu-gehikuntza. Ekuazio horretan parte hartzen duten aldagaiak gehiegi dira, prezio handiago batzuek kostu pisutsuagoak konpentsatzeko: ekoizleak ekoizpen-teknika berrietarako gaitzea; finantzaketa baldintza onetan lortzea; materialak eta sargaiak eskuragarri egotea; bat datorren lege-esparru bat; ustelkeriarik ez egotea, edo itzulkin-tasa handiagoko beste uzta alternatibo batzuen aukera-kostua.

Kakao-sailen produktibitatea gehitzeko neurri horien inpaktu errealarari buruz egin diren azterlan askok funtsezko zalantzak agertu dituzte ustezko onuren inguruan, eta loturik datozen arriskuei buruzko zein halakoak leuntzeko moduari buruzko azterketan sakontzeko iradokizuna egin dute³¹. Hala, bada, badirudi errealtate gordinak atzera ere zapuzten dituela txokolate-enpresa handiekin loturak dituzten ikerketa-zentroek erabilitako eredu teoriko arantz-artzak.

28. Txokolate-enpresa eta *grinder* handiek duela urte batzuk World Cocoa Foundation (WCF) abian jarri zuten; erakunde horren helburua da prestakuntza-proiektuak sustatzea, kakaogileek beren uzten produktibitatea gehi dezaten.

29. Ghanan, esaterako, uztaren heren bat inguru galtzen da izurri-arazoaren ondorioz. Iturria: Hainmueller J., Hiscox M., Tampe M. (2011)

30. Horrela zioen, esaterako, Harold Poelmak, Cargill Cocoa & Chocolate sektoreko enpresa nagusietako bateko zuzendari nagusiak.

(Iturria: www.idhsustainabletrade.com/cocoa)

31. Cocoa Barometer 2012

Azken batean, pestizida eta ongari indartsuagoak erabiltzea ere ez da arriskurik gabekoa, eta oso ongi ezagutzen dira, gainera, zer arrisku dakartzaten ingurumenaren, biodibertsitatearen, elikadura-segurtasunaren eta kakaoa lantzen duten nahiz harekin eginiko txokolatea kontsumitzen duten pertsonen osasunaren kontra. Horrez gain, ezer gutxi esaten da ekoizpenaren ondorioz gerta litekeen lan-esplotazioaren areagotzeaz, nekazarien egiturazko diru-sarrera txikiez, edo esportaziorako monolaborantza-sistemetan sakontzearen arriskuez, azken horien inpaktu negatiboak, mendetasunari dagokionez, duela hainbat hamarkadatik ezagunak izanik.

Hori gutxi balitz, mundu guztiko merkataritza-bidezketasunaren aldeko hainbat aktibistak azken urteetan salatu izan dute transnazionalak desoreken aurkako borrokaren eredutzat aurkezturiko proposamen gailen horiek, eraginik ez izateaz gain, neurri itxurati eta hutsalak direla. World Cocoa Foundation delakoaren *Cocoa Link* programaren aurkako kritikak nabarmentzen dira: enpresa handiek bultzatzen dute, eta nekazariei nekazaritza-teknika hobekien gomentatzeko eta plantazioetan haurrak erabiltzearen aurkako aholkua emateko SMSak bidaltzera mugatzen da³².

Munduko kakao-merkatua kontrolatzen duten enpresa transnazionalak duten ikuspegia era gordin batean islatu baino ez du egiten produktibitateari buruzko diskurtsoak: merkataritza-katean desorekak zuzentzeko, nekazariak behar dute hobetu (ahaldundu, antolatu, produktibitatea gehitu). Ez da ezer aipatzen gainerako eragileek aurrera eramaten dituzten gehiegikeriez eta bidegabekeriez, hau da, desoreka horien egiazko kausez; antza denez, ordea, desoreka horiek zerutik erortzen dira, eta ez dute erantzulerik. Izan ere, nekazariei, merkataritza-katearen maila ahulenei, leporatzen zaie egoera bidegabe hori aldatzeko ardura guztia, azken batean, haien pobrezia errudunak beraiek direla iradokirik, haiexek omen direla egoera horretatik ateratzeko zerbait egin dezaketean bakarrik.

Iraunkortasun-zigiluak ez dira aski

Lan-esplotazioa, haurren lana, soldata txikiak edo nekazariak pobrezia-atalasearen azpitik bizitzea ohiko kontuak dira kakao-ekoizpenean duela hainbat hamarkadatik hona. Azken urteetan aldatu dena herritarrek bidegabekeria horien aurka duten kontzientziazioa izan da, bai eta sektoreko enpresen gaineko presioa ere, zerbait egin

dezaten. Lehen ikusi dugunez, erantzunaren zati bat konpromiso lauso batzuk egitea, autokontrol-sistema batzuk ezartzea eta jarraipena egiteko erakundeak antolatzea izan da, baina halakoen benetako inpaktua zalantzan jarrita dago, jarri ere. Txokolate-industriak, ordea, bere produktuen kanpo-ziurtagenaren apustua ere egin du, sektorearen erronkei aurre egiteko neurri gisa. Duela bi hamarkada baino gutxiago bat-batean azaldu zirenean, kakaoaren ziurtagenaren egiten duten zigiluek gorakada esponentziala izan dute. Sektoreko enpresa nagusiek, hain zuzen, beren gain hartu dute epe ertainean ekoizpen gehiena edo guztia ziurtatzeko konpromisoa.

Gaur egin, hiru ziurtagiri-mota nagusi daude, nazioartean onarturiko estandarrak dituztenak: iraunkortasun-zigiluak, *bio* zigiluak (edo zigilu ekologikoak), eta bidezko merkataritzako zigiluak. Berrikiago sortuak izan arren, bi iraunkortasun-zigilu nagusiak, Rainforest Alliance eta Utz Certified, dira hedatuena merkaturuan³³. Arreta iraunkortasunean jartzen dute, eta plantazioen produktibitatea gehitzean. Aurreko puntuan aztertu dugun txokolate-industriaren egungo estrategiari erantzuten diote, beraz, eta horregatik dira enpresa handien apusturik behinena. Inpaktu-azterlanik oraindik ez dagoen arren, lehen azterketek bi zigilu nagusi horien ikuspegi produktibista kritikatu dute, bai eta ekoizleen bizi-baldintzetan duten eragin urria ere³⁴. Berziki deigarriak dira kasu jakin batzuei buruzko salaketak, kakaoa landatzeko soildu diren oihan tropikaleko zenbait eremuek azkenean horrelako ziurtagiriak lortu dituztelako; horrela, zigilu horiek kontsumitzaileei helarazten dioten bermearen bidez ingurumen-praktika ezin kaltegarriago batzuk ezkututzen dira, eta *a posteriori* legitimatzen.

Merkataritzari eta ingurumenari loturiko bidezketasunaren ikuspegitik, «iraunkortasun»-zigilu horiek ez dira aski inondik inora. Alde batetik, ia ez dute aintzat hartzen irizpide sozialik, bidezko merkataritzak, aitzitik, hori bere funtsezko puntuen artean daukanean³⁵. Eta, beste alde batetik, iraunkortasun-ziurtagiri horiek kakaogintzaren baldintza ekologikoak ere ez dituzte nabarmentzen, *bio* zigiluak, aldiz, bai nabarmentzen dutelarik, eta, neurri handi batean, bidezko merkataritzak ere bai. Haien arretagune nagusia da, alabaina, produktibitatearen eta hektareakako errendimenduen gehikuntza, horien bitartez nekazariak uzta ugariagoak eta sarrera handiagoak izango bailituzkete; baldintza horiek plantazioen «iraunkortasuna» ziurtatuko lukete, mundu-mailan gero eta handiagoa den eskariari erantzuteko enpresek behar duten kakao-hornikuntza ziurtatuta aldi berean.

32. Trade for Development Centre (2013)

33. Horregatik, zigilu horiei «masa-ziurtagiriak» ere esaten zaie.

34. Ruf, F., N' Dao Y., Lemeilleur S. (2013)

35. Zigilu horien eta bidezko merkataritzaren zigiluen arteko konparazio-azterketa xeheagoa ikusteko, bai eta gaiari buruzko bibliografia osagarria izateko ere, ikus Fernández M., Hernández M. (2012)

Ekonomia-sistema bidegabe batek eta nekazaritzako elikagaien industriari nagusi den oligopolioak aurkitu ohi dituzten lasterbideen adibide bat da, guri arazo guztietarako konponbidetzat *kapitalismo berdea* saltzeko eta kontsumitzaileei erantzun faltua emateko, gure erosketek gizaritean zein ingurumenean dituzten inpaktuez gero eta kontzientziatuago baikaude.

Bidezko merkataritzako kakaoa: goraka ari den alternatiba bat

Aurreko kapituluetan zehar ikusi dugu bidezko merkataritza zein neurritan den alternatiba egiazko, praktikoa eta zehatz bat, munduan kakaoa ekoizteko eta merkaturatzeko dagoen sistema bidegabeak ezaugarritzat dituen alderdi eta erronketarako. Mekanismo ezagunena izango den arren, bidezko prezio bat ordaintzea (gutxieneko segurtasun-prezio bat eta nazioarteko prezioaren gainetik garapen-sari bat aldi berean konbinaturik) beste bat baino ez da bidezko merkataritzak duela zenbait hamarkadatik hona abian jartzen dituen mekanismo garrantzitsuen artean, ekonomia aldatzen laguntzeko helburuz, pertsonak eta ingurumena erabakiak hartzeko erdigunean berriz kokaturik.

Talde ekoizle eta inportatzaileen arteko merkataritza-harremantean egonkortasunari eusteko konpromisoa, izaera horizontala, gardena eta parte-hartezkoa bereizgarritzat duten harreman batzuetan, hain zuzen ere; geroero erosketen aurrerakina emanez uztak aurrefinantzatzea; edo kakao-landatzaileei teknikaren eta antolaketaren aldetik laguntza ematea, beren etorkizunaren norabidea demokratikoki gida dezaten eta klima-aldaketaren erronkei erantzun ahal diezaioten, ekoizpen-praktika ekologikoak aurrera eramanez, askotariko uztak landuz, eta autokontsumoa erabiliz, esportaziorako monolaborantzaren arriskuak mugatuta: horiek guztiak, bidezko merkataritzaren funtsezko ezaugarriak ez ezik, merkataritza-mota hau merkatu globalizatu, basati eta espekulaziozkoaren antipodetan kokatzen duten praktikak ere badira. Eta horrekin guztiarekin, Hegoaldeko herrien gizarte- eta pertsona-mailako garapen iraunkorrean laguntzeaz gain, Iparraldeko kontsumitzaileei kalitate goreneko produktu osasungarriak eskaintzen dizkie, eta bidegabekeria-arrastorik gabekoak.

Gaur egun, munduan ekoizten den kakao guztiaren % 1 baino gehiago bidezko merkataritzakoa da. Denetara, urtero bidezko merkataritzako 40.000 tona kakao-ale saltzen dira³⁶, gehiena Fairtrade zigiluak ziurtaturik; bolumen hori

gero eta gehiago hazten ari da, gainera. Kakao-ale horiek ohiko enpresek eskuratzen dituzte, edota bidezko merkataritzako inportatzaileek; txokolate bihurtu, eta hura kontsumitzaileengana hamaika formatan eta kanal askotatik iristen da, azalera handietan dela edo bidezko merkataritzako elkarteek kudeatutako dendetan dela.

Espanian, kakaoa da gehien saltzen den bidezko merkataritzako produktua, kafearen eta azukrearen atzetik. Txokolate-barretan, kakao disolbagarri gisa, kakao-krema gisa, edo beste produktu eraldatu batzuetan, hala nola galletetan edo zerealetan, banatzen da. Hain zuzen ere, Espainiako merkaturan, gozokiak dira, haietan kakaoa eta azukrea egoten direlarik, azkenaldian gehien hazten ari den bidezko merkataritzako produktu-taldea; hala, egun salmenta guztien % 40 baino gehiago dira.

Bidezko merkataritzako kakaoz eginiko produktuak nagusi antolakundearen beren dendetan eta supermerkatu eta azalera handietan saltzen dira. Txikizkako merkataritzako beste saltoki batzuen bidez, *vendin*eko makinaren bidez eta enpresen bidez egiten diren salmentak ez dira hain ohikoak horrelako salgaien banaketan.

Espainiako merkaturan aurki dezakegun bidezko merkataritzako kakaoa Boli Kostan, Ghanan, Perun, Dominikar Errepublikan, Bolivian, Costa Rican eta Ekuadorren kokatutako hogeiren bat ekoizle-taldetatik dator. Hurrengo atalean, talde horietako batzuei buruzko informazioa ematen da, bidezko merkataritzak ematen ari zaien onurak ere azalduta.

Erosketak egitean hartzen ditugun erabakien mende dago, neurri batean, ekoizle-kolektibo horiek eta beste hainbeste haien lanari balioa nola ematen zaion ikus dezaten eta beren jarduerarekin diru-sarrerara duin batzuk eskura ditzaten. Baina bidezko merkataritza babestea ez da mugatzen ekitatezko eta iraunkortasuneko irizpideekin kontsumitzera soilik. Merkataritzaren, gizaritearen eta ingurumenaren alorretan bidezkotasunaren alde egiten den apustuaren barruan, desorekak eta gehiegikeriak salatzen jarraitu behar da, gertatzen diren tokian gertatzen direla, eta enpresa zein gobernuei halakoak eragozteko zerbait egin dezatela tinko eskatu behar zaie. Kontsumo arduratsua, gizaritearen sentsibilizazioa eta eragin politikoa dira merkataritza-bidezkotasunaren aldeko apustu baten hiru zangoak, bidezko merkataritza haren aktibo nagusietako bat delarik. Merkataritzan bidezkotasunez jardutea ona delako ekoizten duenarentzat, kontsumitzen duenarentzat eta mundua aldatzeko. ●

36. Datu hori geure zenbatespena da, Fairtrade International zigiluak 2012an ziurtatu duen kakao-alearen bolumena oinarri hartuta.

5. Ezagutu bidezko merkataritzako kakao-ekoizleen taldeak

Kakokiva (Boli Kosta)

Herrialdeko nekazari-kooperatibarik handiena da, eta Fair-trade ziurtagiria erdietsi zuen lehena. Autokontsumorako eta tokiko merkaturako frutak eta barazkiak ekoizteaz gain, kakaoa eta kafea hazten dute, eta bidezko merkataritzako kanaletatik banatzen dute; horri esker, ohiko merkaturako prezioa baino % 20 handiagoa den prezio batean sal dezakete. Irabazi gehigarri horiekin, osasun-programak, edateko urerako azpiegituren hobekuntzak eta nekazaritza-teknika ekologikoetan prestatzeko proiektuak eramaten dituzte aurrera. Era berean, kooperatibak eskola-bekak ematen ditu, landa-eremuko eskolak sortzeko laguntza ematen du, eta genero-berdintasunaren inguruko prestakuntza-kanpainak egiten ditu. Komunitate-proiektu horiei buruzko erabakiak era demokratikoan hartzen dira, aldian behin eginiko batzarretan.

Kuapa Kokoo (Ghana)

Kooperatiba honek 3.000 familia inguru hartzen ditu barruan. Nekazarien eskubideak aldeztzen ditu, eta ekoizpenaren ordainez prezio egonkorra ziurtatzen die, bai eta merkaturako baino handiagoa ere; horri esker, beren lanetik atera dezakete bizimodua. Bidezko merkataritzaren etekinak komunitatearentzako ondasun eta zerbitzuetan berrinbertitzen dira, hala nola etxebizitzetan edo edateko urean, bai eta kideentzako prestakuntza-proiektuetan ere, ekoizpenari loturiko gaitan (kalitatea, kontabilitatea, kudeaketa). Antolakundearen gobernu-egitura parte-hartzezkoa, demokratikoa eta gardena da, eta emakumeen presentzia ziurtaturik dago zuzendaritza-organoetan.

www.kuapakokoo.com

El Ceibo (Bolivia)

Bigarren mailako kooperatiba bat da, eta 1977an fundatu zuten, garraioaren eta bitartekarien monopolioa hausteko xedearrekin. Guztira, 850 familia hartzen ditu barruan, 38 kooperatibatan antolaturik. Kakaoa lursail txikietan hazten dute, eta gehienak nekazaritza ekologikokoak dira.

Kooperatiba bakoitza hainbat programaren onuradun da, besteak beste: doako prestakuntza teknikoa, seme-alabak eskolatzeko txandakako funts bat erabiltzeko aukera, edo diru-laguntza bat edukitzea gaixotuz gero. El Ceibok bere komertzializazio-sarea du, bitartekaririk gabekoa, eta horrek errentagarritasun handiagoa ematen die bazkideei. Haren antolakuntza sistema demokratikoa eta parte-hartzezkoa da: tokiko kooperatibek zeinek bere ordezkariak hautatzen dituzte, Bazkide Batzar Nagusian parte hartzen, eta batzar hori da agintaritza gorena, lortzen diren irabaziak zertan erabili erabakitzeko ardurarekin.

www.elceibo.com

Naranjillo nekazaritza-industriako kooperatiba (Peru)

32 bazkidek sortu zuten 1964an, haien produktuen truke prezio apalak ordaintzen zituzten bitartekariei aurre egitearren. Zenbait erakunderen ziurtagiri organikoak dauzka. Bidezko merkataritzak ematen dituen irabazi gehigarriekin, kooperatibak kakao-instalazio industrial bat eduki ahal izan zuen 1985ean, eta horrek bere produktuei balioa eranstea ahalbidetu zion. Egun, nekazaritza organikoa sustatzeko programak aurrera eramaten dituzte. Naranjillok emakumeek kooperatiba-enpresan neurri handiagoan parte hartzen dituzte, eta medikuntzako kontsultategi bat du bazkide eta familiakoentzat, prebentzioan, diagnostikoan eta tratamenduan diharduena. Horrez gain, badu aurrezki- eta kreditu-kooperatiba bat, bazkideei finantzaketa ematen diena.

www.naranjillo.com

CEPICAFÉ (Peru)

Bigarren mailako kooperatiba bat da, eta kafea, kakaoa, azukrea (panela) edo konfiturak egiten dituzten 7.000 ekoizle biltzen ditu. 1996az geroztik, ekoizpenaren zati bat bidezko merkataritzako sareen bitartez bideratzen dute; horrek, salmenta-prezio egonkor bat ziurtatzen die, ekoizpen-kostuak estaltzen dituen eta sarrera gehigarriak sortzen dizkiena. Salmenta horiekin eskuraturiko irabaziak ekoizleentzako laguntza teknikoko proiektuetan

eta seme-alabak eskolatzeko diru-laguntzetan erabiltzen dira. Aldi berean, beren ekoizpenerako tokiko merkatuak sendotzen lan egiten dute, bai eta tamaina txikiko nekazaritzaren aldeko politikak ezartzeko eragina sortzen ere.

www.cepicafe.com.pe

Cacvra: Cooperativa Agraria Cafetalera Valle Río Apurímac (Peru)

Kakaoaren eta kafearen ekoizle txikien elkarte bat da, Ayacucho dagoena, Apurimac ibaiaren ibarrean. Bazkideak 2.750 dira, eta, hamarkada bat baino gehiago dela, bidezko merkataritzako kanalen bitartez banatzen dute ekoizpena. Hezkuntzaren eta gizartearen arloko proiektuetan erabiltzeaz gain, bidezko merkaturatze horretatik datozen sarrerak batez ere nekazaritza ekologikoa hobetzeko programetara bideratzen da: ongari organikoak eta lanabesak erostera; lehorte-instalazioak eraikitzea; edo biltegiak eta garraioa hobetzeko inbertsioak egitera. Emakumeentzako berariazko lidergo-programak dira kooperatibaren bereizgarrietako bat.

COOPROAGRO (Dominikar Errepublika)

Herrialdeko kakao-ekoizleen talde txikien lehen kooperatiba izan zen. Haien ekoizpena organikoa da, eta bidezko merkataritzaren garapen-saria era ekitatiboan banatzen da kooperatibaren proiektu zentral eta komunen artean, kide diren taldeentzako beste proiektu batzuetan erabiltzeaz gain. Sarrera handiago horiei esker, bazkideei eskaintzen zaizkien zerbitzu ugariak gehitu eta hobetzeko aukera dago: ekoizpenerako laguntza teknikoa; kakaoaren kalitatea hobetzeko inbertsioak (mintegiak, kakao-hartzitzekoak, lehorte-orgak, eta abar); aurrezteko eta interes txikian mailegatzeko programak; ikasteko edo eskolaren, osasunaren eta komunitatearen arloko azpiegiturak eraikitzeako diru-laguntzak (elektrofikazioa, komunitate-zentroak, edateko ura araztea).

<http://cooproagro.org>

CONACADO: Dominikar Kakaogileen Konfederazio Nazionala (Dominikar Errepublika)

9.200 nekazari txikik osatzen dute, oinarriko 126 talde-tan antolaturik, eta bederatzi kooperatibatan dihardute. Nekazarien % 90ek 3 hektarea lur baino gutxiago lantzen du, eta ia ekoizpen guztia ekologikoa da. Bidezko merkataritzako kanalen bitartez salduz, garrantziko mikrokreditu-sistema bat sortu ahal izan da. Mikrokredituak kooperatiben egituretan berrinbertitzen dira, eta, funtsean, emakumeen enplegarritasuna sustatzen dute. Aldi berean, komunitateen garapenerako proiektu sozialak eramaten dira aurrera, kooperatibisten bizi-baldintzak hobetzeko helburuz.

<http://conacado.com.do>

Coopeagri (Costa Rica)

1962. urtean sortu zen, ekoizteko eta merkaturatzeko alternatiba gisa, konpainia handiek inposaturiko kanale-tatik zein gehiegikeriazko eta bidegabeko baldintzetatik kanpo. Kanaberaren eta kafearen zenbait ekoizle-ek—ehunka batzuek— osaturiko taldea, Valle de El General deritzon aldekoa, pixkanaka handitu zen, nekazaritzaren, industriaren, merkataritzaren zein finantzen arloetako zeregin gehiago bere gain hartuta. Egun, 10.000 bazkide baino gehiago ditu, eta erreferentziazko kooperatiba gisa nabarmentzen da herrialdearen hegoaldeko garapen ekonomikoan. Bidezko merkataritzak bermatzen dituen gutxieneko prezioak eta garapen-sariak ekoizleei etorki-zunerako funtsezkoak diren inbertsioak egiten laguntzen diete, hala nola teknologia modernoa eskuratzea, ekoizpen-prozesuak optimizatzea edo komunitateetako lider gazteei prestakuntza ematea.

www.coopeagri.co.cr ●

6. Informazio gehiago izateko esteka interesgarriak

Bibliografiako eta estatistikako erreferentziak

- Carro de Combate (2013). *Informes de Combate: Cacao* www.carrodecombate.com
- Cocoa Barometer 2012 (VOICE Network, Solidaridad, Hivos) www.cocoabarometer.org/Cocoa_Barometer/Welcome.html
- Daviron B., Ponte S. (2005). *The coffee paradox: global markets, commodity trade and the elusive promise of development*. Zed Books
- Fairtrade Foundation (2011). *Fairtrade and Cocoa* www.fairtrade.org.uk/includes/documents/cm_docs/2011/C/Cocoa%20Briefing%20FINAL%20Sept11.pdf
- Fernández M., Hernández M. (2012). *La Sombra y El Guapotal: dos realidades distintas de afrontar los problemas de la industria del café y cómo el Comercio Justo aumenta la calidad de vida de los/as pequeños/as productores/as*. Tesina. Bartzelonako Unibertsitatea. Mon-3. blogcomerciojusto.files.wordpress.com/2013/05/tesis-cj-maribel-maria.pdf
- Hainmueller J., Hiscox M., Tampe M. (2011). *Sustainable Development for Cocoa Farmers in Ghana* www.responsibleagroinvestment.org/sites/responsibleagroinvestment.org/files/Ghana%20Cocoa%20Baseline%20Report_Jan%202011.pdf
- Infocomm: Merkataritza eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentziaren (UNCTAD) oinarritzko produktuen inguruko merkatu-informazioa. Kakaoa <http://r0.unctad.org/infocomm/espagnol/cacao/mercado.htm>
- International Cocoa Initiative (ICI) www.cocoainitiative.org
- International Cocoa Organization (ICCO) www.icco.org
- ICCO (2012). *The World Cocoa Economy: Past and Present* www.icco.org/about-us/international-cocoa-agreements/cat_view/30-related-documents/45-statistics-other-statistics.html
- IPEC / ILO (2005). *Combating child labour in cocoa growing* www.ilo.org/public//english//standards/ipcc/themes/cocoa/download/2005_02_cl_cocoa.pdf
- Oxfam Intermón (2013). *Estudio sobre el Cacao de Comercio Justo en República Dominicana. La experiencia de Coopragro*
- Payson Center for International Development and Technology Transfer (Tulane University). Kakaoaren Protokoloaren eraginari buruzko ebaluazio-txostenak www.childlabor-payson.org
- Haurren lana ezabatzeko LANEren Nazioarteko Programa (IPEC) www.ilo.org/childlabour
- Ruf F., N'Dao Y., Lemeilleur S. (2013). *Certification du cacao, stratégie à hauts risques* www.inter-reseaux.org/IMG/pdf/Certification_du_cacao_Ruf_juin2013.pdf
- The Sustainable Trade Initiative www.idhsustainabletrade.com/cocoa
- Trade for Development Centre (2013). *Plus d'éthique dans la filière du cacao d'ici 2020 : rien qu'une promesse?* www.befair.be/fr/content/plus-d%E2%80%99%C3%A9thique-dans-la-fili%C3%A8re-du-cacao-d%E2%80%99ici-2020-rien-qu%E2%80%99une-promesse
- World Cocoa Foundation (WCF) worldcocoafoundation.org

Estekak

- Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundea www.comerciojusto.org
- Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundea www.wfto.com
- Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundea – Europa www.wfto-europe.org

“Bidezko merkataritza elkarrizketan, gardentasunean eta errespetuan oinarrituriko sistema komertzial bat da, nazioarteko merkataritzan zuzentasun handiagoa lortu nahi duena, gizartearen eta ingurumenaren inguruko irizpideetan arreta berezia jarrita. Lagungarria da garapen iraunkorrean, baldintza komertzial hobeak eskainiz eta egoera ahuleko ekoizleen eta langileen eskubideak ziurtatuz, Hegoaldean bereziki.”

Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundearen definizioa



Jarraiguzu:



www.facebook.com/CEComercioJusto



[@CEComercioJusto](https://twitter.com/CEComercioJusto)



www.linkedin.com/company/coordinadora-estatal-de-comercio-justo



[CEComercioJusto](https://www.youtube.com/CEComercioJusto)

Laguntzaileak:



cooperación
española